



Haurtzaro Ikastola

Funtzionamendu
orokorra



2016-17 ikasturtea



Hartzaro Ikastola
Elorrondo z/g. 20180 Oiartzun

www.hartzaroikastola.eus
hartzaro@ikastola.eus
943 49 16 59

2016/17 Ikasturteko

FUNTZIONAMENDU / ANTOLAMENDU OROKORRA

1. Ikastolaren organigrama	5
2. Zuzendaritza, Arlo Pedagogikoa eta Zerbitzuetako langileen antolaketa	6
3. Ordutegia eta Egutegia	10
3.1. Ordutegia	10
3.2. Egutegia	11
3.3. Guraso Bilerak	13
3.4. Ikasturte bukaerako ibilaldiak	14
4. Garraio zerbitzua	15
5. Jantoki zerbitzua	21
6. Eskolaz kanpoko ekintzak	24
7. Zaintza zerbitzuak	26
8. Ikasleen bertaratze falta edo huts egiteak	27
9. Ikasleen eskubide eta betebeharren arautegia	28
10. Ikasleen telefono mugikorren erabilera araudia	28
11. Ikastolara sarrera ordua baino lehen etortzen diren ikasleak	29
12. Ikasleak Ikastolara iritsi direla ziurtatzeko prozedura	30
13. Osasunaren trataera Haurtzaro Ikastolan	31
14. Haurtzaro Ikastolako informazioa	33
15. Ikasleek ikastolan galtzen dituzten arropa eta bestelakoak	35
16. Kexak eta iradokizunak	35
17. Funtzionamendu txostenari buruz ohar garrantzitsuak	36



1. ORGANIGRAMA

KOOPERATIBAKO BATZAR NAGUSIA

LAN BAZKIDEAK - BAZKIDE ONURADUNAK - BAZKIDE EZ AKTIBOAK ETA BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

JAGOLARITZA BATZORDEA
HIRU BAZKIDE

KONTSEILU ERREKTOREA

5 LAN BAZKIDE, 5 BAZKIDE ONURADUN, BAZKIDE EZ AKTIBO EDO LAGUNTZAILE BAT, ZUZENDARIA ETA ADMINISTRARIA

HEZKUNTZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA (BAZKIDE ONURADUNA)

ZUZENDARIA

ORDEZKARITZA INSTITUZIONALA

EHI / GILB
OIARTZUNGO UDALA
UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA
OIARTZO BATXILLERGO IKASTOLA
HERRIKO EUSKARA BATZORDEA
HERRI GIZARTE HEZKUNTZA KONTSEILUA
AGENDA 21
HERRI PLANEAMENDUA
XANISTEBANAK
BESTE...

AZPIBATZORDEAK ETA LANTALDEAK

KONTRATAZIO ETA LAN-HARREMAN
BATZORDEA
BEKA BATZORDEA
OBRA BATZORDEA
HIZKUNTZA BATZORDEA
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK
MENDI TALDEA
TXINPART
FESTAK
WEB ORRIA - ARGAZKIAK

ADMINISTRARIA / IKASKETA BURUAK

ZERBITZUEN KUDEAKETA

ZERBITZU EZ
PEDAGOGIKOEN ARLOA

PEDAGOGIA ARLOA

LAN-HARREMAN ETA
EKONOMIA ARLOA

2. ZUZENDARITZA, ARLO PEDAGOGIKOA eta ZERBITZUETAKO LANGILEEN ANTOLAKETA

2.1. Zuzendaritza taldea

Zuzendaria: Sorkunde Lekuona	
Administraria: Agustin Vital	Ikasketa buruak: Itziar Lekuona, Izko Lekuona eta Pili Lizaso

2.2. Arlo pedagogikoaren antolaketa

Haur Hezkuntza - Tutoreak

HAUR HEZKUNTZA	3 urte	1.A	Roxali Otegi
		1.B	Igone Urkia
		1.C	Itziar Lekuona
	4 urte	2.A	Iosune Cousillas
		2.B	Ainara Uranga
		2.C	Itziar Muguruza
	5 urte	3.A	M ^a Jesus Retegi
		3.B	Arantza Lopez
		3.C	Izaskun Sistiaga
		3.D	Ana Gelbentzu

Haur Hezkuntza - Ez tutoreak

Ingelesa	Itsaso Goikoetxea
	Aritz Salamanka

Lehen Hezkuntza - Tutoreak

LEHEN HEZKUNTZA	1. Maila	1.A	Amaia Gelbentzu
		1.B	Marilo Zubizarreta
		1.C	June Retegi
	2. Maila	2.A	Inma Iturria
		2.B	Jaione Iragarri
		2.C	Olatz Lekuona
	3. Maila	3.A	Agurtzane Zubizarreta
		3.B	Garazi Aramendi
		3.C	Karmele Etxebeste
	4. Maila	4.A	Beñar Kazabon
		4.B	Idurre Arrastua
		4.C	Lide Martiarena
	5. Maila	5.A	Koro Uria
		5.B	Garazi Urdanpilleta
		5.C	Beñat Mendizabal
5.D		Lupe Mendigutxia	
6. Maila	6.A	Miren Arruabarrena	
	6.B	Joxan Arruabarrena	
	6.C	Elias Arizmendi	

Lehen Hezkuntza - Ez tutoreak

Gorputz Hezkuntza	Beñat Mendizabal
Ingelesa	Itsaso Goikoetxea – Olatz Lekuona - Aritz Salamanka - Eva Moreno
Musika	Amaia Cardona
Hezkuntza Laguntzako espezialistak	Lara Augusto – Lorea Añorga

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza - Tutoreak

DERRIGO- RREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	1. Maila	1.A	Mariaje Frutos Leire Lekuona Ander Mariezkurrena
		1.B	
	2. Maila	2.A	Maider Lekuona Josune Saizar Iñaki Lertxundi
		2.B	
		2.C	
	3. Maila	3.A	Argiñe Oiarbide Patxi Lizarraga Ramon Gorrotxategi
		3.B	
	4. Maila	4.A	Jaione Ugaldebere Kristina Boan Donibane Azkarate
		4.B	

Derrigorrezko Bigarren

Hezkuntza - Ez tutoreak

Pilar Altuna
Maribi Alonso
Josu Arotzena
Sohalge Arbelaitz
Maite Gomez
Aritz Gonzalez
Ariane Retegi
Xabi Solano
Madalen Usabiaga

Psikologoa

Miren Garbizu

Hezkuntza Premia Bereziak irakaslea

Haur eta Lehen Hezkuntza	Miren Garbizu
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Nekane Orkaizagirre Pili Lizaso

Hezkuntza Laguntzako espezialistak

Ainhoa Jauregi

Zerbitzuetako langileen antolaketa

Idazkariak	Arantza Urbietta eta Paki Zabala	
Atezainak	Xabier Landa eta Egoitz Aduriz	
Jantokiko eremuetako Arduradunak:	Begiraleak	
	HH 3 urte	Gurutze Aranburu, Gurutze Ezkerro, Nuria Aizpurua eta Oihana Jaimerena
	HH 4 urte	Yolanda Gaztelumendi, Izar Lekuona eta Ainhoa Intxausti
	HH 5 urte	Lurdes Lopez, Begoña Larruskain eta Arantzazu Urkia
	LH 1. maila	Estibalitz Ruiz eta Rocio Bravo
	LH 2. maila	Eskarne Darceles eta Laura Zaragozano
	LH 3 maila	Ixiar Etxebeste eta Amaia Sanzberro
	LH4 maila	Estitxu Alkorta eta Larraitz Aranburu
	LH 5 maila	Maider Olaizola eta Oihana Urdanpilleta
	LH6 maila	Arantza Esnaola eta Arantxa Oliden
DBH	Maritxu Loperena, Arantxa Oliden, Larraitz Aranburu, Laura Zaragozano, Oihana Urdanpilleta eta Begoña Larruskain	
Garraioa	Eskarne Sesen	
Eskolaz kanpoko ekintzak	Koordinatzailea: Alaitz Bergaretxe	
Zaintza zerbitzua	Goiza (8:00 – 9:00): Eskarne Darceles, Izar Lekuona	
	Arrats. (16:30-17:30): Arantzazu Urkia	
Idazkaritzako ordutegia	Irailetik ekainera: 8:00 - 13:15 eta 14:30 - 17:30 Uztaila: 8:00-14:00	

3. ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

3.1. Ordutegia

IKASLEEN ORDUTEGIA	Goizez	Arratsaldez	Urteko orduak
HAUR HEZKUNTZA	9:00 - 12:00	14:30 - 16:30	841 ordu
LEHEN HEZKUNTZA	8:30 - 12:00	14:30 - 16:30	928 ordu
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	8:00 - 13:15	14:45 - 16:45 *	1.103 ordu

(*) asteazkenetan eta ostiraletan, arratsaldez jai

IRAKASLEEN ORDUTEGIA	Aste osoan	Beste
HAUR HEZKUNTZA	8:30 - 13:00 14:30- 16:30	Astelehenak: 13:30 - 14:30 Asteazkenak: 16:30 - 18:00
LEHEN HEZKUNTZA	8:30 - 13:00 14:30 - 16:30	Astearteak: 13:30 - 14:30 Asteazkenak: 16:30 - 18:00
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	8:00 - 13:15 14:45 - 16:45 ostiralak izan ezik	Asteazkenak: 14:45 - 18:00

3.2. Ikasturteko Egutegia

IRAILA

Irailak 1: Irakasleen ikasturte hasiera

Irailak 7: HH eta LHko ikasleen ikasturte hasiera

Irailak 8: DBHko ikasleen ikasturte hasiera

Irailak 9: Jai eguna

Irailak 19: Eskola egun osoz

URRIA

Urriak 7: Jai eguna

Urriak 12: Jai eguna

Urriak 31: zubia

AZAROA

Azaroak 1: Jai eguna

ABENDUA

Abenduak 6: Jai eguna

Abenduak 8: Jai eguna

Abenduak 9: Zubia

Abenduak 21: Neguko oporrak, eguerdian

Abenduaren 22tik urtarrilaren 8a bitarte neguko oporrak

URTARRILA

Urtarrilak 9: Bigarren hiruhilekoaren hasiera

OTSAILA

Otsaila 27: Inauterietako astelehena, jai eguna.

APIRILA

Apirilak 7: arratsaldean udaberriko oporrak

Apirilaren 10etik 21a bitarte udaberriko oporrak

Apirilak 24: Hirugarren hiruhilekoaren hasiera

MAIATZA

Maiatzak 1: Jai eguna

EKAINA

Ekainaren 12tik 22ra: HH, LH eta DBHko ikasleak goizez (egun erdiz)

Ekainak 22: Eguerdiz, udako oporrak

Ekainaren 30etik aurrera, irakasleriaren udako oporrak

2016/2017

HH-LH ETA DBHko ikasleen egutegia

- Hasierak HH-LH-DBH
- Oporrak
- Hasiera HH-LH
- Zubiak
- Hasiera DBH
- Jai egunak
- ✂ Egun erdiz HH, LH eta DBH
- Inauterietako jai eguna

Iraila

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

Urria

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

Azaroa

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Abendua

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Urtarrila

A	A	A	O	O	L	I
					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Otsaila

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

Martxoa

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Apirila

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Maiatza

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Ekaina

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

3.3. Guraso bilerak

IKASTURTE HASIERAKO GELAKO GURASO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 3 URTE: irailak 29, osteguna
- 4 URTE: irailak 28, asteazkena
- 5 URTE: irailak 27, asteartea

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: irailak 21, asteazkena
- 2. MAILA: irailak 20, asteartea
- 3. MAILA: irailak 22, osteguna
- 4. MAILA: irailak 22, osteguna
- 5. MAILA: urriak 3, astelehena
- 6. MAILA: irailak 26, astelehena

DBH

- 1. MAILA irailak 26, astelehena
- 2. MAILA irailak 28, asteazkena
- 3. MAILA: irailak 29, osteguna
- 4. MAILA: irailak 27, asteartea

IKASTURTE BUKAERAKO GELAKO GURASO BILERAK

HAUR HEZKUNTZA

- 3 URTE: maiatzak 22, astelehena
- 4 URTE: maiatzak 18, osteguna
- 5 URTE: maiatzak 18, osteguna

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. MAILA: maiatzak 25, osteguna
- 2. MAILA: maiatzak 24, asteazkena
- 3. MAILA: maiatzak 23, asteartea
- 4. MAILA: maiatzak 23, osteguna
- 5. MAILA: maiatzak 29, astelehena
- 6. MAILA: maiatzak 30, asteartea

DBH

- 1. MAILA: ekainak 8, osteguna
- 2. MAILA: ekainak 7, asteazkena
- 3. MAILA: ekainak 5, astelehena
- 4. MAILA: ekainak 6, asteartea

3.4. Ikasturte bukaerako ibilaldiak

- **HH 3 (5 URTE): ARRITXULO**
Ekainak 8-9
- **LH 1. maila: ASTITZ**
Ekainak 5-6
- **LH 2. maila: ZARAUTZ**
Ekainak 1-2
- **LH 3. maila: SASTARRAIN**
Ekainak 6-7
- **LH 4. maila: MAULE (ZUBEROA)**
Maiatzak 31- Ekainak 1-2
- **LH 5. maila: ZUHATZA (ARABA)**
Ekainak 5-6-7
- **LH 6. maila: AROTZENEA**
Ekainak 5-6-7
- **DBH 1. maila: LARZABAL (BEHE NAFARROA)**
Ekainak 19-20-21
- **DBH 2.maila: ACEDO (NAFARROA)**
Ekainak 19-20-21
- **DBH 3. maila: GORLIZ (BIZKAIA)**
Ekainak 19-20-21
- **DBH 4. maila: COMA-RUGA (CATALUNYA)**
Ekainak 19-20-21-22-23

4. GARRAIO ZERBITZUA

Garraio Zerbitzuko arduraduna **Eskarne Sesen** da.

Autobuseko arduradunaren eginkizuna da ikasle guztiak autobusean jaso eta beren geltokietan uztea. Edozein argibide nahi izanez gero, berarekin harremanetan jarri behar da. Horretarako idazkaritzara deitu eta abisua utzi behar duzue eta ondoren bera jarriko da zuekin harremanetan.

Mezu zuzenak emateko ondorengo zenbakira deitu dezakezue: **688 803049 (Eskarne)**

GARRAIO IBILBIDEA 2016/17 HAUR HEZKUNTZA

GOIZA: SARRERA, 9:00

9:00		
	LARREZABALETA	8:30
	ARRAGUA GOIA	8:32
	ARRAGUA BEHEA	8:34
	LARTZABAL	8:37
	FANDERIA	8:39
	UGALDETXO	8:41
	IBARRE	8:42
	ITURRIOTZ	8:43
	ALTZIB Agerrealde	8:46
	ALTZIB Olalde	8:47
	ALTZIB Kaleberria	8:48
	IKASTOLA	8:55

EGUERDIA: IRTEERA, 12:00

12:00	IKASTOLA	
	ARRAGUA GOIA	12:13
	ARRAGUA BEHEA	12:14
	LARTZABAL	12:18
	FANDERIA	12:20
	UGALDETXO (Intxixu)	12:22
	IBARRE	12:24
	ITURRIOTZ	12:26
	ALTZIBAR	12:28

EGUERDIA: SARRERA, 14:30

14:30		
	LARREZABALETA	13:58
	ARRAGUA GOIA	14:00
	ARRAGUA BEHEA	14:03
	LARTZABAL	14:05
	FANDERIA	14:07
	UGALDETXO (Intxixu)	14:09
	IBARRE	14:11
	ITURRIOTZ	14:13
	ALTZIBAR	14:15
	IKASTOLA	14:25

ARRATSALDEA: IRTEERA, 16:30

16:30	IKASTOLA	16:35
	ARRAGUA GOIA	16:41
	LARREZABALETA	16:43
	ARRAGUA BEHEA	16:44
	GABIERROTA	16:45
	LARTZABAL	16:47
	FANDERIA	16:50
	UGALDETXO (Intxixu)	16:53
	IBARRE/ ITURRIOTZ	16:55
	ALTZIBAR	16:56

GARRAIO IBILBIDEA 2016/17 LEHEN HEZKUNTZA

GOIZA: SARRERA, 8:30

8:30		
	ARRAGUA GOIA	8:03
	ARRAGUA BEHEA	8:05
	FANDERIA	8:09
	UGALDETXO (Intxixu)	8:11
	IBARRE	8:12
	ITURRIOTZ	8:13
	ALTZIB Agerrealde	8:14
	ALTZIB Olalde	8:15
	ALTZIB Kaleberria	8:17
	ERGOIEN	8:23
	IKASTOLA	

EGUERDIA: IRTEERA, 12:00

12:00	IKASTOLA	
	ARRAGUA GOIA	12:13
	ARRAGUA BEHEA	12:14
	LARTZABAL	12:18
	FANDERIA	12:20
	UGALDETXO (Intxixu)	12:22
	IBARRE	12:24
	ITURRIOTZ	12:26
	ALTZIBAR	12:28
	ERGOIEN	12:30

EGUERDIA: SARRERA, 14:30

14:30		
	LARREZABALETA	13:58
	ARRAGUA GOIA	14:00
	ARRAGUA BEHEA	14:03
	LARTZABAL	14:05
	FANDERIA	14:07
	UGALDETXO (Intxixu)	14:09
	IBARRE	14:11
	ITURRIOTZ	14:13
	ALTZIBAR	14:15
	IKASTOLA	14:25

ARRATSALDEA: IRTEERA, 16:30

16:30	IKASTOLA	16:35
	ARRAGUA GOIA	16:41
	LARREZABALETA	16:43
	ARRAGUA BEHEA	16:44
	GABIERROTA	16:45
	LARTZABAL	16:47
	FANDERIA	16:50
	UGALDETXO (Intxixu)	16:53
	IBARRE/ ITURRIOTZ	16:55
	ALTZIBAR	16:56

GARRAIO IBILBIDEA 2016/17 BIGARREN HEZKUNTZA		
GOIZA: SARRERA, 8:00		EGUERDIA: IRTEERA, 13:15
ARRAGUA GOIA	7:36	XORROLA
ARRAGUA BEHEA	7:38	
GABIERROTA	7:40	
LARTZABAL	7:42	
FANDERIA	7:45	
IKASTOLA	7:50	
ARRATSALDEA: SARRERA, 14:45		ARRATSALDEA: IRTEERA, 16:45
LARREZABALETA	14:23	XORROLA
ARRAGUA GOIA	14:25	
ARRAGUA BEHEA	14:27	
LARTZABAL	14:29	
FANDERIA	14:32	
IKASTOLA		

4.1 Altak eta bajak

- Garraio-zerbitzuan alta idazkaritzan ematen da. Horretarako, ikasle berriei izena emateko orria banatzen zaie.
- Behin izena emanda, ulertzen da ikasleak hurrengo urteetan ere zerbitzua erabiliko duela. Beraz, izen-ematea ez da urtero berritu behar.
- Baja ere idazkaritzan bideratu behar da.

4.2. Garraio zerbitzuko oinarrizko arauak

Garraio Zerbitzua **Ikasleek soilik** erabil dezakete.

Ikaslearen geltokia, izen emate orrian adierazitakoa izango da. Egin nahi den edozein aldaketa idatziz adierazi behar du gurasoak; idazkaritzan daude ereduak.

Garraioa ikastolako zerbitzua izanik, **ikastolako arauak** beteko ditugu:

- Autobusean ere EUSKARAZ hitz egingo dugu.
- ERRESPETU OSOZ tratatu behar ditugu: autobuseko arduraduna, gidaria, kideak, eta nola ez, autobusa bera ere bai.
- Gure lekuan eserita egongo gara bidai osoan (arduradunak esandako lekuan).
- Segurtasun uhala erabiliko da beti, eta ikaslearen ardura ere izango da bidai guztian lotua eramatea.
- Autobusean ezin dugu ezer jan eta ezer leihotik bota, eta ez dugu mugikorrik erabiliko.

4.3. Bajak Eskolaz kanpoko ekintzak dituzten egunetan 16:30etako zerbitzuan.

4.3.1. Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzen kasuan:

Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzen kasuan, Ikastolan ulertzen dugu haurrak eskolaz kanpoko ekintza bat duen egunetan ez duela 16:30etako autobusa hartuko. Baina gerta daiteke egun horietako batean haurrak etxera joan behar izatea eta eskolaz kanpoko ekintzara joan gabe autobusa hartu behar izatea. Kasu horretan, BETI idazkaritzara deitu (943 49 16 59) edo garraio arduradunari abisua pasatuko zaio ondorengo telefonora deituz edo mezu bat bidaliaz (whatsapp bat, adibidez): **688 803049 (Eskarne).**

4.3.2. Ikastolak antolatzen ez dituen eskolaz kanpoko ekintzen kasuan:

Ikastolan ez dugu informaziorik haur bakoitzak noiz duen ekintza hori. Beraz, ulertzen dugu egunero haurrak zerbitzua erabiliko duela. Horregatik, urte hasieran, gurasoek IDATZIZ adierazi beharko dute haurrak asteko zein egunetan EZ DUEN garraioa arratsaldean erabiliko.

Baina gerta daiteke egun horietako batean, haurrak etxera joan behar izatea eta eskolaz kanpoko ekintzara joan gabe autobusa hartu behar izatea. Kasu horretan, BETI idazkaritzara deitu (943 49 16 59) edo garraio arduradunari abisua pasatuko zaio ondorengo telefonora deituz edo mezu bat bidaliaz (whatsapp bat, adibidez):

688 803049(Eskarne)

4.4. Baja puntualak beste arrazoiren batengatik.

4.4.1. Egunen batean haurrak ez badu etxera joateko garraioa erabiliko, BETI abisatu behar da:

- Idazkaritzara deituz (10ak baino lehen goizean eta 15:30 baino lehen arratsaldean)
- Edo telefonora mezua bidaliaz 688 803049 (Eskarne)

4.4.2. Abisurik eman ez eta ikastolara haurraren bila etortzen bada gurasoa, AUTOBUS GELTOKIAN

JASOKO DA HAURRA, ETA ARDURADUNARI BERRI EMANGO DIO GURASOAK.

Arren, prozedura horiek betetzea eskatzen dizuegu. Modu horretara kudeaketa ona lortzeaz gain, haurrentzat segurtasuna bermatuko dugu.

4.5. Xorrolan Ikastolara

DBHko autobus erabiltzaileek, ikastolako autobus zerbitzuaren osagarri XORROLA ere erabiliko dute ikasturte honetan. Nola?

- Ikasle bakoitzak Xorrola erabiltzeko txartel bat izango du, pertsonalizatua.
- Ikasleak egunero ikastolako autobus zerbitzua erabiliz etorriko dira: goizean eta eguerdian
- Ikasleak eguerdian eta arratsaldean etxera XORROLAn joango dira.

Modu honetara:

- Eguerdian ikastola ondoko errotondako geltokian hartuko dute 13:23ean.
- Bazkal ondoren itzultzeko ikastolako zerbitzua erabiliko dugu: 14:21ean Arraguan eta ohiko moduan gainontzeko geltokietan.
- Arratsaldean, 16:55ean etxerako XORROLA hartuko dute.

Xorrola iristen ez den auzoetara Taxi-bus zerbitzuarekin lotuko da.

4.6. Bizikletaz Ikastolara

- Ekimen hau **LH eta DBHko ikasleei irekia** dago.
 - Bizikleta gordailua prestatua dago, jantokiaren ondoan.
 - Atea 7:45ean ireki eta 8:30ean itxiko da, 12:00etan ireki eta 14:45ean itxiko da (garai honetan bizikleta gordailua zaindua egongo da), eta 16:30ean ireki eta 17:00etan itxiko da.
 - Eskolaz kanpoko ekintzen bukaeran ere gordailuko atea irekiko du ekintzaren monitorea.
 - Erabiltzaileek bizikleta giltzarrapoarekin giltzatuta utzi behar dute eta kaskoa gelara eramango da.
 - Ikastola ez da ordutegi horretatik kanpo bertan uzten den bizikletaren erantzule egiten, ez eta gordailutik kanpo uzte den bizikletaz ere.
- Ikastolako ordutegi barruan, eguerdikoa eta ekintza osagarrietakoa barne, ezingo da bizikleta gainean Ikastolako eremuan ibili. Garai horretan bizikletaz etortzen denak, Ikastolako eremuan bizikleta eskuan hartuta eramango du gordailura eta irten ere modu horretara egingo da.

4.7. Patinetez Ikastolara

Ikastolako ordutegiaren barruan, eguerdikoa eta ekintza osagarrietakoa barne, ezingo da patinete gainean ibili ikastolako eremuan. Garai horretan patinetez etortzen denak, Ikastolako eremuan patinetea eskuan hartuta eramango du gelara eta irten ere modu horretan egingo da.

5. JANTOKI ZERBITZUA

Jantokiko **arduradun orokorra Maritxu Loperena da**. Honez gain maila bakoitzak, eta, handiagoen kasuan, ziklo bakoitzak arduradun finko bat du.

Gurasoek edozein zalantza izanez gero, haurraren arduradunarekin ere zuzenean harremanetan jartzeko aukera izango dute. Horretarako ikastolako idazkaritzara deitu (943491659) eta abisua utzi behar dute. Ondoren arduraduna gurasoekin harremanetan jarriko da.

Idazkaritza 13:00etatik 14:30ak bitartean itxita dagoenez, **larrialdiren bat suertatuz gero bakarrik deitu mugikor honetara:**

692 730 199 (Maritxu)

5.1. Altak eta Bajak

- Jantokiko zerbitzua erabili ahal izango dute aurrez izena emandako ikasleek.
 - Izen ematea ikasturte osorako edo egun solteetan ere egin daiteke.
 - Izen ematea, edo alta, IKASTURTERO egin behar da. Ekainean egiten da edo beharra sortzen den unean ere egin daiteke.
 - Jantokiko abisuak idazkaritzan hartuko dira goizeko 10ak arte (e-postaz ere egin daiteke-idazkaritza@haurtzaro.ikastola.eus). Abisu horiek aurreko egunetan ere eman daitezke, ez dira derrigorrez egunean bertan eman behar.
 - Izena emana izan eta egunen batean **ez bada etorriko, BETI ABISATU** behar da; kontuan izan Ikastolaren ardurapean dagoela haurra garai horretan eta arduraduna ezin aurkiturik ibil daitekeela.
- Bestalde, 10ak aurretik abisua pasatuz gero, egun horretako kostua deskontatuko da.

5.2. Menuak

- Elikadura orekatu baten irizpideak jarraituz antolatzen dira.
- Hilabeteko lehen egunean banatuko da.
- Haurren batek egunen batean "dieta astringentea" behar badu, goizeko 10ak baino lehen gurasoek idazkaritzara deituz eska dezakete sukaldariak prestatu dezan.
- Gaixotasunengatik (alergiak) menu bereziak. 13. puntuari jaso dagoen prozedura jarraitu behar da.

Menuan berrikuntzak poliki-poliki sartzen dira, beti, ikasleen harrera kontuan izanik.

5.3. Autonomia, Osasun eta Elikadura Ohiturak

- Bazkaldu aurretik eskuak garbituko dira; HH eta LHn arduradunaren ardurapean egingo da, DBHn berriz, ikaslearen esku gelditzen da hori egitea.
- Ikasleari jateko tresnak modu egokian erabiltzea eskatuko zaio; HHn helduaren laguntzarekin egingo da, bere kabuz erabiltzeko gai diren arte.
- Janari bakoitzetik gutxieneko bat probatzea eskatzen da; HHn eta jantokira hasi berriak diren ikasleekin malgutasunez jokatzeko da.
- Janaria mahai gainera eta lurrera bota gabe jan behar da.
- Bazkaldu ondoren hortzak garbitzea ez da derrigorrezkoa izango ikasle guztientzat; gurasoen esku egongo da erabakia. Beraz, **zuen seme-alabak eguerdian bazkal ondoren hortzak garbitzea nahi baduzue ondorengoa egin behar duzue:**
 - a. Idatziz guri adierazi. Horretarako **idazkaritzan orria bete.**
 - b. **Hortzak garbitzeko tresnak ekarri:** hortz-eskuila eta pasta

Oharra: HH eta LHko haurrak, eguerdietako eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen badute eta saioak 13:30 baino lehen hasten badira, ez dituzte egun horietan hortzak garbituko.

Etapa bakoitzean:

Haur Hezkuntzan:

- Jantokiko begiraleak arduratuko dira hurrei laguntzeaz.
- Hortz-eskuilak jantokian jasoko ditugu.

Lehen Hezkuntzan:

- Jantokiko begiraleak hurrei laguntzeaz arduratuko badira ere, haurraren esku gelditzen da tresnen erabilera.
- Hortz-eskuila eta pasta nezeser txiki batean gordeko dira; haurrak bere tresnak antolatzen hasten dira, edo antolatzen ditu.

Horregatik:

- LHkoak garbitzeko tresnak nezeser txiki batean ekarri behar dituzte, ondoren hor gordetzeko.
- Opor garai bakoitzeko aurreko eskola egunean, etxera eramango dute nezeserra eta eskuila garbitzeko, eta berriz ere oporren ondoren ekarri beharko dute.

Bigarren Hezkuntzan:

- **Ikaslearen esku dago hortzak garbitzea.**
- Hortz-eskuila eta pasta nezeser batean gordeko dute ikasleek. Beraz bakoitzak bere tresnak ekarriko ditu eta bere garbitasunaz arduratuko da.

5.4. Jantokiko Araudia

Jantokia ikastolako zerbitzua izanik, Ikastolako arauak beteko ditugu:

- Jantokian ere **EUSKARAZ** hitz egingo dugu.
- Jantokiko langileak arduratuko dira ordena eta funtzionamendu egokiaz. Beraz, guztiok **ERRESPETATU** behar ditugu, eta eurek hartutako erabakiak onartu.
- Bazkalorduan eserita egongo gara lekuz aldatu eta istilurik sortu gabe.
- Arazoren bat dugunean, bertako arduradunarengana joko dugu arazoa konpontzeko.
- Ikasleen Eskubide eta Betebeharren araudian jasoa dagoen modura **ikasleek ezingo dute garai horretan (12:00-14:30 edo 13:15-14:45) Ikastolako eremutik atera, beti ere gurasoek baimenduta ez bada**. Baimen hau idatziz adierazi behar da; beti ikaslea atera aurretik (14.artikulua, 3. puntua). Eredua Web orrian eta idazkaritzan jaso dezakezue. Ikaslearen jokabidea desegokia bada, baimen hori zuzendariak kendu ahal izango du.
- Ikasleak irteteko baimenik ez duen kasuan, gurasoa ez den beste norbait ikaslearen bila etorriko balitz, aurrez abisatu behar da arduradunak jakin dezan; idazkaritzara deitu (943491659) horren berri emateko, edo begiraleari ahoz adieraztea ere nahikoa izango da.

· **Etiketrik ekartzen diren jostailuak:**

- Haur Hezkuntzako ikasleek etiketik ekartzen dituzten jostailuak gelan utziko dira; kasu bereziren batean jantokira eramanez gero apal batean jasoko da Ikastolara itzuli bitartean; jantokian bertako jostailuekin jolastuko dugu.
- Lehen Hezkuntzan: baloiak gelan utziko dira. Beste jostailuak (txapak, zibotak...) jangelara eraman daitezke bazkal ondoren jolasteko, baina horien zaintzaren ardura ikaslearena izango da.

5.5. Gurasoei informazio idatzia:

Jantokiko ikasleen gurasoek jantokiko informazioarekin informe idatzia jasoko dute:

- Haur Hezkuntza:
 - Egokitzapen garaian astean behin
 - Ondoren, hilabete bukaeran.
- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan: hiruhilekoaren bukaeran, eskola informarekin batera.

6. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Koordinatzaile orokorra Alaitz Bergaretxe da.

Eskolaz kanpoko ekintzen antolaketa eta funtzionamendurako argibideak banatutako ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN txostenean adieraziak daude. (Webgunean aurkitu dezakezue).

Koordinatzailearekin harremanetan jartzeko:

1. Zuzenean: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara eta asteazkenetan 15:30etatik 17:00etara. Ikastolara deitu dezakezue (943491659) edo bertara etorri ere bai.

2. estraeskolarrak@hartzaro.ikastola.eus helbidera bidali dezakezue zuen oharra.

Aurtengo eskaintza ondorengo tauletan adierazten da:

HAURTZAROKO KULTUR JARDUERAK

JARDUERA	MAILAK
EUSKAL DANTZA	LH 1-DBH 4
DANTZA GARAIKIDEA	LH 1-DBH 4
JOLAS TXOKOA	HH2 – LH1
ESKULANAK	LH 1-LH 6
BERTSO ESKOLA	LH 5 -DBH 4
MALABAREAK	LH 1- DBH 4
DANTZA TXAPELKETAK	LH 3-DBH 4
ANTZERKIA	LH 1-LH 6
MUSIKA TAILERRA	HH 2-HH 3
ABESBATZA	LH 1-DBH 4
PANDEROA	HH 3tik aurrera
TRIKITIXA	LH 1-DBH 4
ROBOTIKA	LH 3-DBH 4

HAURTZAROKO KIROL JARDUERAK

JARDUERA	MAILAK
ESKOLA KIROLA	LH 3 eta LH 4
	LH 5 eta LH 6
ATLETISMOA	LH 3tik aurrera
KENPO	HH 3- LH 4
XAKEA	LH 1- DBH 4
GURPIL GAINENKO IRRISTAKETA	HH 2- DBH 4

- Asteroko maiztasuna duten ekintzak dira hauek
- Hilean behingo maiztasuna duen ekintza: Ikastolako Mendi Taldea

BESTE ERAKUNDEEK ANTOLATZEN DITUZTEN EKINTZAK

JARDUERA	MAILAK
ESKOLA PILOTA	LH 3 eta LH 4
	LH 5 eta LH 6
GIMNASTIKA ERRITMIKOA	HH 3tik aurrera
HIP – HOP	LH- DBH
JUDOA	HH 3tik aurrera
SASKIBALLOIA	DBH 1etik aurrera
OARSOALDEA IGERIKETA	LH 3tik aurrera

7. ZAINZA ZERBITZUA

7.1. Goizeko zaintza gela:

- Ordutegia: 8:00etatik 9:00etara izango da.
- Beranduenez 8:45etan sartu ahal izango da zaintza gelan.
- Gurasoak gelan hasierako egunetan soilik sartu ahal izango dute, haurra egokitu bitartean; urritik aurrera ez dira gurasoak zaintza gelan sartuko.
- 3 urteko haurren kasuan, egokitzapen garaian ahal bada zerbitzua ez erabiltzea aholkatzen dizuegu gurasoei. Kasu horretan iraila bukaeran hasiko direnez zerbitzua erabiltzen, gurasoak urria bukaera arte sartu ahal izango dira zaintza gelan.
- HH eta LHko ikasleei irekia dago.
- Ez da izenik eman behar erabili aurretik, irekia da.
- Doako zerbitzua da.
- Arduradunak: Eskarne Darceles eta Izar lekuona dira.

7.2. Arratsaldeko zaintza gela:

- Ordutegia: 16:30etik 17:30era izango da.
- Zerbitzua erabiltzeko izena eman behar da, eta kuota bat du (Ikasturte hasieran erabiltzaile kopuruaren baitan erabakiko dena).
- Izen emateko deialdia iraileko bigarren buletinean egin da.
- Arduraduna: Arantzazu Urkia izango da.
- Kuota 10 hilabetetan pasatuko da.

7.3. Liburutegia erabiltzeko aukera:

- Ordutegia: 8:00-9:00 eta 16:30-17:30.
- Izena ematen duten gurasoek soilik erabili dezakete beren seme-alabekin (zerrenda bertan jarria egongo da).
- Gurasoak izango dira leku horren erabilera egokiaren arduradunak.
- Izen emateko deialdia iraileko bigarren buletinean egin da.

8. IKASLEAREN BERTARATZE FALTA EDO HUTS EGITEA

Ikasleen eskubide eta betebeharren araudian jasota dago ikasleek kalitatezko hezkuntza integrala izateko duten eskubidea (I. kapitulua, I. atala, 6. artikulua). Hori horrela izanik, gurasoek ikasleen bertaratze falta edo huts egitea justifikatu egin behar dute.

Nola?

- Haur Hezkuntzan: irakasleari ahoz adierazita (telefonoz edo aurrez aurre), edo mezu elektronikoz bidez.
- Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan: irakasleari ahoz adierazita (telefonoz edo aurrez aurre), mezu elektronikoz bidez edo ikasleak huts egiteak adierazteko orria (talonarioa) beteta ekarriz.
- Justifikatu ez diren huts egiteak, **justifikatu gabeak** izango dira.

Noiz?

- Huts egitea aurreikus daitekeen kasuetan (medikuarekin hitzordua,...), aurrez justifikatzea komeni da.
- Huts egitea aurreikusi ezin denean (gaixotasuna,...) egunean bertan telefonoz edo mezu elektronikoz abisatzea komeni da. Ez bada horrela egiten, ikaslea ikastolara etortzen den egunean idatziz jakinaraztea komeni da.
- Beranduenez 3 eguneko epean justifikatu behar da.

Hezkuntza Sailak horrela araututa, tutoreak huts egiteen erregistroa egingo du etapa guztietan. Hilabete bakoitzaren bukaeran zuzendariak ikasleen bertaratzearen berri eman behar du Hezkuntza Ikuskaritzan.

9. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ARAUTEGIA

Hurtzaro Ikastolako Ikasleen eskubide eta betebeharren araudia EAeko unibertsitatez kanpoko ikasleen eskubide eta betebeharrei dagozkion, abenduaren 2ko, 201/2008 aginduan (EHAA 2008ko abenduaren 16an argitaratua) eta Hurtzaro Ikastolako Hezkuntza Proiektuan oinarritzen da. Ikastolako webean eguneratua egongo da kontsulta-gai. Paperean nahi duenak idazkaritzan eskuratu ahal izango du.

10. IKASLEEN TELEFONO MUGIKORREN ERABILERA ARAUDIA

Ikastolako lanetarako eta komunikaziorako ikasleek ez dute behar telefono edo gailu mugikorrik, beraz, tresna hori Ikastolan erabiltzea (piztua edukitzea) debekatua dago.

Ikasleren batek telefono edo gailu mugikorra Ikastolara ekarriko balu ondorengo prozedura jarraituko da:

- Ikaslea izango da bere mugikorraren erantzulea. Edozein intzidentzia gertatuz gero, Ikastola ez da erantzule izango.
- Gogoratu Ikastolako ordutegian (eskolaz kanpoko ekintzak barne) eta Ikastolako eremuan mugikorra itzalia eduki behar dela.
- DBHko ikasleak 8:00etan bere takilan sartuko du eta 13:15ean hartuko du; 14:45ean berriz ere takilan utzi eta 16:45ean hartuko du.
- LHko ikasleren batek Ikastolara ekarri behar badu, seguru gordea egon dadin Irakasleari eman diezaioke 8:30ean eta etxera joaterakoan eskatuko dio.
- Gelako lanetarako mugikorra ekarri behar denean, ikasleak agendan mezu bat eramango du eta irakasleek ikaslearen mailako calendarren ere adieraziko du horren berri (DBHn).
- Telefono edo gailu mugikorraren erabilera desegokia egiten denean (arau horiek betetzen ez direnean), irakasleak ikaslearen telefonoa hartuko du, ikasleari eskatuko dio, eta tutorearen esku jarriko du. Gailu hori gurasoari eskura itzuliko zaio.

Ohar garrantzitsua: EZINBESTEKOA da gailu horietaz ikasleek egiten duten ERABILERAREN JARRAIPENA GURASOEK egitea. Ikasleak adin gutxikoak direnez, eta gailu horiek ikasleen esku gurasoek jartzen dituztenez, GURASOAK dira erabilera horren ERANTZULE eta EZ IKASTOLA.

11. IKASTOLARA SARRERA ORDUA BAINO LEHEN ETORTZEN DIREN IKASLEAK

Goizean edo arratsaldean Ikastolara sarrera ordua baino lehenago etortzen diren ikasleen kasuan ondoren adierazten den moduan jokatu da:

1. Goizean:

- a. Goizeko zaintza zerbitzua: ikastolan zaintza zerbitzua badagoenez, bertara joan beharko luke ikasleak.
- b. Pasilloetan gelditzen diren ikasleak: batzuetan ikasleak pasilloetan gelditzea erabakitzen dute. Kasu horietan bertan egoten utziko zaie, beti ere beren jokabidea egokia den bitartean. Jokabide desegokirik gertatuko balitz, zuzendaria gurasoekin harremanetan jarriko da.

2. Arratsaldean:

- a. Jantokiko zerbitzu garaian: arratsaldean, ikasleak ikastola ordua baino lehenago etortzen direnean, jantokiko ikasleekin batera Ikastolako eremu ezberdinak erabiltzen dituzte. Ikasle horien jokabidea egokia den bitartean, ez dago arazorik horretarako, baina jantokikoak ez diren ikasle horiekiko erantzukizunik ez dute begiraleek. Jokabide desegokia den kasuetan zuzendaria gurasoekin edo gurasoarekin harremanetan jarriko da.
- b. Pasilloetan gelditzen diren ikasleak: arratsaldeetan ere ikasle batzuk pasilloetan gelditzea erabakitzen dute. Kasu horietan bertan egotea utziko zaie, beti ere beren jokabidea egokia den bitartean. Jokabide desegokirik gertatuko balitz, zuzendaria gurasoekin edo gurasoarekin harremanetan jarriko da.

Ikaslea Ikastolako eremuaren barruan dagoen momentutik Ikastolan gertatzen denaren arduradun Ikastola denez hartu du erabaki hau Hezkuntza Batzordeak (2011-04-24). Ikastolako bizikidetzeta ahalik eta osasuntsuena izan dadin, gurasoei ere gai honetaz etxean hitz egitea eskatzen zaizue, funtzionamendu onerako guztion konpromisoa beharrezkoa baita.

12. IKASLEAK IKASTOLARA IRITSI DIRELA ZIURTATZEKO PROZEDURA

Ikasle bat bakarrik, oinez, etortzen denean, nola jakin Ikastolara iritsi dela?

Guraso baten eskaerari erantzunez, Hezkuntza Batzordeak (2011-05-09) ondorengo prozedura onartu zuen:

1. Prozedura jarraitzeko eskaera idatziz egin behar da. Horretarako inprimakia idazkaritzan eskatu eta bertan entregatu behar da.
2. Ikaslea Ikastolara etorriko ez bada, gurasoak beti abisatu beharko du ikaslearen sarrera ordua baino lehen idazkaritzara deituz (943 49 16 59).
3. Gurasoa beti lokalizatua egongo da, horretarako emango duen telefono zenbakian.
4. Ikaslea, LHko kasuan 8:30ean, DBHn 8:00etan, gelara etorri ez bada, eta gurasoaren abisurik ez bada idazkaritzan jaso, jarraian gurasoari deituko zaio.

Prozedura hau LH eta DBHko ikasleekin aplikatuko da, eta baliorik gabe geldituko da gurasoen aldetik hartutako konpromisoa bi alditan baino gehiagotan betetzen ez den kasuan.

13. OSASUNAREKIN ERLAZIONATUTAKO GAIEN TRATAERA

13.1.-OSASUN ARRETA BEREZIA IKASTOLAN (gaixotasunak, alergiak, ...)

1. Denboraldi luzekoak diren kasuetan

Haurrak osasun arazo bat badu, gurasoek/tutoreak ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio dagokion mediku ziurtagiriak aurkeztuz. Ziurtagiriak honako hauek jaso beharko ditu: osasun arazoa zein den eta eskola orduetan eman behar zaion arreta (arreta modalitatea, jarduerak, eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak). Idazkaritzan eskura dezakezue ereduak.

2. Denboraldi mugatukoa, laburra, den kasuetan

Ikasle batek eskola garaian denboraldi labur batean **arreta berezia behar badu**, hau da, osasun egoerarengatik arreta berezia edo botikarik eman behar badio irakasleak:

Gurasoak honen berri emango dio irakasle tutoreari IDATZIZ, idatzizko mediku agiriarekin batera.

- Garai honetan haurrari arreta berezia eskaintzeko bere aginpide edo autoritatea ordezkotzan emango dio, hau ere idatziz. Garbi adieraziko da bertan zeregin hori betetzeari dagokionez erantzukizun guztietatik kanpo gelditzen dela irakaslea.
- Medikazio bat eman behar denean, kasu honetan aurrekoan aipatutakoaz gain, gurasoaren idatzian garbi adieraziko da eman beharreko dosia eta maiztasuna.

Idazkaritzan eskura dezakezue ereduak.

3. Ikaslea ikastolan gaixorik edo ondo ezik jartzen den kasuan

HH eta LHn gurasoen agindurik gabe, ez zaio ikasleari botikarik emango. Ikastolan bertan ondoeza suertatuz gero, botikarik eman daitekeen ala ez gurasoei kontsultatuko zaie telefonoz egoera sortzen den momentuan. Botika emango zaio beti ere aurrez gurasoek idatziz horrela egitea baimendu badute. Horretarako **gurasoei ikasturte hasiera bakoitzean medikazioa emateko baimena emateko orria betetzea eta sinatzea eskatuko zaie.**

DBHko IKASLEEN kasuan, gurasoei ikasturte hasiera bakoitzean medikazioa emateko baimena emateko orria betetzea eskatuko zaie. Baimena ematen den kasuetan, ikasle batek ondoezik aurkitzen delako botikarik eskatuko balu, irakasleak eman egingo dio eta erregistro orri batean honen berri jasoko du. Gurasoek baimenik ematen ez duten kasuan, ikasleari ez zaio medikaziorik emango.

13.2. Zorrien gaia

Zorrien gaiarekin ondoren adierazten den moduan jokatu da Haurtzaro Ikastolan:

1. Gurasoei dagokie, osasun eta higiene ohitura modura, astero edo maiztasun jakin batekin haurren buruak begiratzea.
2. Irakasleak bere gelako haur bat buruan hazkuraka ikusten badu, eta zorriak izan ditzakeen susmoa badu, haur horren gurasoari zorriak eduki ditzakeela adierazi dio, hitzez edo idatziz.
3. Gurasoen ardura izango da, ahalik eta epe laburrenean, beren seme-alabari zorriak kentzea.

URREZKO ARAUA

Tratamendu kimiko bat jarri aurretik, egiaztatu egin behar dugu infekzioa dagoela, zorriak bizirik, mugitzen, ikusita. Etxekoren batean buruan zorriak aurkitu badira, etxeko guztiak aztertzea komeni da, eta, zorriak dituela egiaztatuz gero, tratamendua jartzea, dauzkaten haiei.

Ez erabili sekula zorrien aurkako loziorik, tratamenduak “badaezpada” egiteko.

Jarraibide horiek Gipuzkoako hainbat profesionalen artean egindako gidan jasoak daude: BURUKO ZORRIEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA URREZKO ARAU BAT. Irakasle eta osasun-profesionalak (farmazialari, erizain eta mediku) eta Epidemiologia unitateko teknikariak elkartu dira horretarako. Nahi izanez gero GIDA idazkaritzan eska dezakezue edo ikastolako web orrian. Donostia-San Sebastián 1/03/2016 kontsultatu.

14. HAURTZARO IKASTOLAKO INFORMAZIOA

14.1. Buletina

Buletina Haurtzaro Ikastolako barne komunikaziorako dokumentua da, bertan asteko informazioa agertuko da.

- Buletin **bakoitzak zenbaki bat** du.
- **Zein datarekin atera den** adierazten da.
- **Ostiraletan** banatzen da (jai den kasuan aurreko egunean).
- **Ataletan banatua** dago:
 - berri orokorrak
 - etapa bakoitzeko berriak
- **Nola jasotzen da:** e-postaz edo eskura (paperean) jaso daiteke.
 - **PAPEREAN:** Familiako ale bat banatuko da, horrela eskatu duten familiei, edo helbide elektronikorik Ikastolan eman ez duten familiei. Senide gazteenak jasotzen du.
 - **E-POSTAZ:** E-postaz bidaliko zaie helbide elektronikoa ikastolan eman duten familiei.
- **Salbuespenak:** ostirala baino lehen presazko ohar bat bidali beharra suertatuz gero, oharra banatuko da, eta salbuespena izango denez e-postaz jasotzen duzuenok paperean ere jasoko duzue.

Buletinak jarraikiak dira. Beraz, ostiraletan adi egotea komeni da.

Oharra: e-postaz bidalitakoan 2 txandatan itzulia etortzen bada famili horrek hurrengo buletinak paperean jasoko ditu.

14.2. Idazkaritzako helbide elektronikoa

Ikastolako partaideon arteko komunikazioa errazteko, idazkaritzan e-posta kontu zuzena dugu:

idazkaritza@hartzaro.ikastola.eus

Kontu honetan jasoko dira jantoki eta garraioko mezuak, baita idazkaritzarako den beste edozein ere. Mezuak argiak eta zehatzak izan behar dute.

14.3. Ikasturteko agenda webgunean

Hartzaro Ikastolako webgunean agendan aurkituko duzue Ikastolako bilera eta ekitaldi guztien egutegia.



14.4. Ikastolan erabiltzen diren inprimakiak

Eskaera ezberdinak egiteko erabiltzen diren ikastolako inprimakiak idazkaritzan eska ditzakezue edo eta web orrian aurkituko dituzue "Dokumentazioa/ gurasoen dokumentazioa" atalean.

14.5. Tutoreekin eta zuzendaritzarekin e-postaz komunikatzeko aukera

Horrela nahi duzuen gurasoek zuen seme-alabaren tutorearekin eta zuzendaritzarekin e-postaz komunikatzeko aukera duzue.

Zuzendaritzako kideen eta tutore bakoitzaren helbide elektronikoa ikastolako web orrian aurkituko duzue "**ikasturtea-egitura akademikoa**" atalean.

Jakin ezazue mezu bat bidali ondoren agian arratsaldea edo hurrengo goiza arte ez duela irakasleak irakurriko eta 24 orduko epean agian ez duzuela erantzunik jasoko, epe hori beharrezkoa baitugu gure antolaketarengatik.

15. IKASLEEK IKASTOLAN GALTZEN DITUZTEN ARROPA ETA BESTELAKOAK

Ikasleek tarteka beren arropa edo bestelakoak (karpeta...) galtzen dituzte.

Arroparen kasuan sarrera nagusian dagoen pertxeroan zintzilikatzen da. Galdu duenaren ardura izango da bertan begiratzea, eta galdutako arropa bertan egongo balitz zuzenean har dezake.

Leku horretan arropa dezente pilatzen denez, oporraldi bakoitzean bertan pilatu den arropa jaso egingo da.

Aurkitu diren gainontzekoak idazkaritzan jasotzen dira; bertan galdetu dezakezue zerbait galdu duzuen kasuan.

16. KEXAK ETA IRADOKIZUNAK

Haurtzaro Ikastolak iradokizun eta kexetarako zehaztutako prozedurari jarraituz, zure seme/alabaren **tutorearekin, ikasketa buruarekin edo zuzendariarekin harremanetan** jarri beharko zenuke, dagokion gaiaren arabera.

Zure iradokizuna ala kexa web orrialdearen bidez bidaltzea erabakiko bazenu, eta nori zuzentzen zaion adieraziko ez bazenu, jakizu Zuzendaritzari igorriko zaiola, hark nola bideratu erabaki dezan.

17. FUNTZIONAMENDUKO OROKORREKO TXOSTENARI BURUZ OHAR GARRANTZITSUAK

1. Funtzionamendu orokorreko txosten hau indarrean egongo da Hautzaro Ikastolan hurrengo txostena banatu bitartean.
2. Txosten hau euskaraz sortu da eta gaztelaniara itzuli da. Bi bertsioetako edukia diferentea bada euskarako bertsioan jasoa dagoen informazio da zuzen jasoa dagoena.